

Aikor!

txorierriko aldizkaria



egiten dugu!

ETAren su-eten, itxaropena



ETXAHUN LEKUE, *bertsolaria*

1. ETAk erabaki ausarta eta sendoa hartu du beste behin. Ezker abertzaleak prozesu demokratiko baterako indar guztiak ipini-ko ditu eta gainontzeko indarrek ere beste horrenbeste egitea espero dut.

2. Kontuak luze joko du eta oztopo asko izango dira bidean (Ibonen atxiloteta horren adibidea da). Baina pazientzia eduki eta nork bere eremutik prozesuaren alde egin beharko du. Denok gure aletxoa ipiniz gero, herri aske bat izango gara goiz edo berandu.



MARI ELI ZARATE, *dendaria*

1. Itzela dela uste dut, guztiok hobeto bizi geintezkezalako. Horrela, bada, ongizatea eta oreka politikoa izango ditugu eta lasaia bizi izango gara.

2. Politikariek akordio batera ailegatzea lortzen badute, oso ondo. Nire ustez, horiek ahalegina egin eta euren partetik jarri behar dute, egoera konpontzeko. Izan ere, herritarrok esfortzu hori eginda daukagu dagoeneko.

Martxoaren 23an ETA erakundeak su-eten iraunkorra iragarri zuen. AIKOR! aldizkariak txorierritarren albiste horren inguruko iritzia batu ditu.



UDANE GOIKOETXEA, *kazetaria*

1. Sarritan entzun arren orain arte ez dut sinistu. Baina bai, antza bai. Nekeak zalantzaren hazia ereiten du. Gaur artekoak ez dira alperrik izan. Hilabete joan da. 2. Egunotan etologoen espezializazioaz egin du berba batek baino gehiagok: etologoak edo ETAn espezializatuak. Egia esan, asko dago bazterretan. Euskaldunon borondatea, hizkuntza, izaera non dagoz, non dago mezua? Ez ote da itsaso zabalean hara eta hona dabilen kristalezko botilako mezu ahaztua?



PEDRO MARI GOIKOETXEA, *kazetaria*

1. Aspaldiko notiziarik onena. Eta ea behin-betiko den, atzera buelta barik.

2. Zer gertatuko den ez dakit, hala ere, etorkizunerako neuk nahiko nukeena hurrengo hau izango zen: askatasunez bizi ahal izatea, norberaren pentsaera edozein izanda ere.

1. Zer deritzozu ETAk iragarritako su-eten iraunkorrari?

2. Eta hemendik aurrera, zer? Nola ikusten duzu etorkizuna?



AITOR ELIZEGI, *sukaldaria*

1. Azken urteetako apusturik politenatarikoa da eta alde guztiek esfortzua egin beharko dute. Kaleko iritzia oso argia da: esfortzu hori egin eta bidea topatu, mesedez. Izan ere, jendeak Europan du burua, beharbada, eta egia esan, bertan dago gure seme-alaben etorkizuna, euskaldunak, kataluniarrek edo espainolak izan arren.

2. Ondo, izan ere, oraingo honetan ere akordiorik lortu ezean, ez dakit nola justifikatu ahalko zuten hori. Gurea ikusteko herria bazen lehen, pentsa ezazue bakea lortu ondoren! Eta inork ez du Franco ahaztu, baina jendeak bere inguruan egon zena barkatu duela uste dut. Eta horrela egi-ten dira gauzak: etorkizuna barkamenaren atzetik dago.

zabalduta da herritarren artean



JESUS LANDA, *liburu-saltzailea*

1. Egia esateko, oilo-ipurdia jarri zitzaidan, izan ere, borrokatu nahi dutela adierazi dute, baina elkarrizketaren bidez. Elkarrizketari atea zabalik utzi zaio.
2. Batzuk oztopoak jartzen dabilta eta horretan dago arazoa. Hala ere, arretaz eta pixkanaka-pixkanaka lortu ahalko dela uste dut. Eta elkarrizketa-mahai horretan talde guztiek parte hartu behar dute, guztiak baliozkoak direlako. Ezin da inor baztertu.



MAITE ARANBURU, *legebiltzarkidea*

1. Gatazka politikoa gainditzeko ekarpen ausarta da, eta urte luzez herritar askok egindako borrokaren ondorioa ere bai. Orain, Gasteizko, Espainiako eta Frantziako gobernuek distentsio keinuak egin beharko dituzte.
2. Jendartearen bultzada eta borroka ezinbestekoak izango dira, bakea eta demokrazia lortzeko. Eta horretan euskal herritar guztiok dugu hitza. Oraindik itxita dauden ate asko ireki behar ditugu, proiektu politiko guztiak baldintza berdinetan garatzeko.



JESUS Mª ORTIZ DE ANDA, *pentsionista*

1. Poza handiz hartu dut, izan ere nerabea nintzela trantsizioa bizi nuen eta aldaketak batzuei huts egin zigun, motz gelditu zelako. Eta hainbeste sufrimendu pairatu dugu... Prozesuaren eboluzioari adi nago.
2. Itxaropentsu. Prozesu luzea izango da eta bi urte barru hauteskunde orokorrak izango ditugu, gainera; ikusiko dugu zer gertatuko den. Politikariek euren protagonismoa alde batera utzi eta herritarro hitza eman beharko ligukete.



AITOR LARRAZABAL, *futbolari ohia*

1. Gauzak nola zeuden ikusita, sorpresaz hartu nuen hasiera batean, baina oso albiste pozgarria izan da. Ea Madrilen konturatzaren diren lasai bizi nahi dugula!
2. Gero eta hobeto. Kirol arloan, adibidez, Euskadiko Selekzioak direla-eta oztopo handiak izan ditugu eta guztion artean gauzak aldatzea lortuko dugu pixkanaka-pixkanaka. Independentzia oso inportantea da guretzat, eta egunen batean edukiko dugu, zaila izan arren. Lasai bizitzea lortuko dugu.



VIRGINIA IBARRONDO, *administraria*

1. Egia esan, aurrekoan ilusio handiagoa izan nuen eta zelan amaitu zen ikusita, eszeptikoagoa naiz orain. Lehen txarto egindakotik ikasi beharko dute, akats berdinak ez egiteko.
2. Borondateak alde guztietatik egon behar du, aurrera egiteko. Eta pitika-pitika aldaketak ikusi behar dira gobernuen aldetik: presoak, Batasunaren ilegalizazioa..., gauzak normalizatzen hasteko. Guztiek esaten duten moduan, bide luzea eta behar gogorra ditugu aurretik.



IRUNE DAÑOBEITIA, *politikaria*

1. Itxaropen momentua ezin hobea da arazoaren konponbiderako, izan ere, aurrekoetan ez da egon oraingoan dagoen nahi politikoa. EAJn urteak daramatzagu lan egiten bakea eta normalizazio politikoa lortzeko, eta horrela jarraituko dugu.
2. Itxaropentsu eta itxaropen horrek zer ikusi handia izango du Euskal Herriaren hazkundera eta garapenera. Ideia guztiak defendagarriak izango diren etorkizuna eta indarkeriarik gabeko gizartea eraikitzen ahalegindu behar gara denok batera.

Zeure eritxia agertu gura badozu, gutunen atal hau zabalik daukazu. Ahalik eta eritzi gehienek lekua euki dagien, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta nortasun agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezke-ro, Aikor!-ek bere esku dauka horretarako eskubidea. Zure eritxia aginduteko helbidea: Totoan, Aresti kalea 2, 48170, Zamudio edo aikortxori@yahoo.es

Txorierrin eta ez Txori-Hirin bizi gura dogulako, PTP honi ez!

Gure herriko agintariek ez dabe nahikoa izan Sondika, Derio eta Zamudioko herriak industriaz inguratzeagaz, eta Txorierrin guztia zementoz betetzeagaz: bide generala, Txorierrin korridorea, Larrabetzuko bariantea. Ez jatzue susmagarria iruditzen hainbeste obra gure herrietan? Honen etekinak nora doaz? Nahikoa izango ete eben? Ba ez! Ez daukie gure haina! Orain erabaki dabe gure herrietan etxebizitzak eraikitzea neurri barik, Txorierrin biztanleria itzel handia-gotuz eta ondorioz gure herriak nortasun bako guneak bihurtuz, hau da, “ciudad dormitorio”ak bihurtuz. Hau guztiau Bilboren onerako eta Txorierrin kalterako.

Gure udaletatik sartzen ahalegintzen diren mezua garapen sostengarriarena da,

baina, garapena? Zeri deitzen deitsoe garapena? Gure herriak industriaz inguratzeari? Etenbarik hegazkinen, autoen, trenen eta kamioien zaratak entzun eta hautsak irunzteari? Herriko bizia hiltzeari? Euskaldunon nortasuna diren baserriak botatzeari?

Guk, zuok ez bezala, garapena ez deit-sagu bakarrik teknologiar, zientziari eta hazkunde ekonomikoari deitzen. Horreek bai, beharrezkoak dira baina euren, gure eta gure ondorengo bizi kalitatearen, gure amaluraren errespetuaren eta gure herrien nortasunaren babesaren artean oreka bat topatu beharko genduke. Hori bai izango litzatekeela garapene!

Txorierrin bizirik!

Txorierrin Gazte Mugimendua

Loiuko III. Padel Txapelketa, arrakastatsua

Martxoaren 4tik 25era bitartean Loiuko III. Padel Txapelketa izan zen, bertako Lagunak Kultur eta Kirol Elkarrekin antolatuta. Txapelketak arrakasta handia eduki du eta bertan 46 bikotek hartu zuten parte. Horietatik 30 emakumezkoak izan ziren eta 16 gizonezkoak. Joana Madariagak eta Teresa Kintanak lehenengo postua eskuratu zuten emakumezkoen kategorian eta txapel-dunordeak Lourdes Arbaiza eta Pilar Velasco izan ziren. Beste alde batetik, Andoni Bardascok eta Sabin Lorentzok irabazi zuten gizonezkoen kategorian eta Alvaro Sukiak eta Roke Santiagok lortu zuten bigarren postua. 1.500 euro banatu ziren saritan.

Derioko argazki rallya, prest

Apirilaren 29an Derioko VI. Argazki Rallya izango da, Derioko Argazki Taldeak antolatu eta bertako Udalak lagunduta. Rallyari kiroldegian, 10:30etan, emango zaio hasiera eta kategoria bi osatuko dira: haurrak eta helduak. Izen emate-kuota bost eurokoa izango da helduentzat eta bi eurokoa ume-entzat. Rallyan izena eman ostean, argazki-erroilua emango zaie partehartzaileei eta, era berean, zein motatako argazkiak atera behar dituzten azalduko zaie. Bildumarik onenak 150 euro jasoko du saritzat eta horrezaz gainera, beste sari batzuk ere emango dira.

Meñika Soto del Realeko kartzelan sartu dute

Herriko Taberna domekan zabaldu zuten. Zamudioko hainbat eragileren arabera, Ibon atxilotzea eta Herriko Taberna ixtea “oztopo bat gehiago baino ez dira gure herrian zabaltzen ari diren aukera berriak eragozteko”



Argazkia: Aner Mentxaka

Ibon Meñika zamudioztarra kartzelan sartzeko agindua eman zuen Santiago Pedraz Auzitegi Nazionalako epaileak, eta Soto del Realera eraman zuten. Gaztea apirilaren 23an atxilotu zuten Abadiñon, Guardia Zibilak ezarritako kontrol batean. Poliziaren arabera, ETari diruz laguntzeko bonoak zera-matzen Meñikak.

Zamudioztarrak lau egun egin zituen bakarturik, eta zapatuan epailearen aurrera eroan zuten aitortpena hartzeko. Hala ere, ez zien epailearen galderei erantzun, eta torturatu eta tratatu txarra eman ziotela salatu zuten; gainera, guardia zibilei eginiko aitortpen guztiak ukatu zituen.

Ibon Meñika atxilotu ostean, guar-



Zamudioko eragile eta elkarte batzuek gaztea askatzeko eskatu dute

dia zibilek haren etxeko logela eta Zamudioko Herriko Taberna miatu zituzten eta leku biotatik kutxa batzuk eraman zituzten. Herriko Taberna, gainera, itxi egin zuten, baina domekan kendu egin zuten zigilua. “Ez dute gauza handirik eraman”, esan digu tabernaren arduradunak.

Zamudioko hainbat elkarte eta eragileren arabera, Meñika atxilotzea eta Herriko Taberna ixtea oztopo bat gehiago baino ez dira Euskal Herrian zabaltzen ari diren aukera berriak eragozteko, eta Ibon askatzeko eskatu dute. Ziurtatu dutenez, lanean jarraituko dute, marko demokratikoa lortzeko eta herritar guztion eskubideak errespetatuak izan daitezen.

Larragoiti jauregia inauguratu dute Zamudion



Jauregian enpresa haztegia eta txokoa ezarri dira

Apirilaren 1ean, Larragoiti jauregia inauguratu zuen Sorkunde Aiarza Zamudioko alkateak. Inaugurazio ekitaldira herritar asko batu ziren; herritarrez gainera, Belen Greaves Kulturako foru diputatua eta Txorierriko alkateak ere izan ziren. Ekitaldia girotzen ibili ziren Zamudioko Kamara Korala, Bertoko elkarteko trikitilariak, Iru Bat dantza taldea eta Hortzmuga antzerki taldea.

Larragoiti jauregia XVII. mendean egina da eta Zamudioko erakinik adierazgarrienetarikoa bat da. Jauregia berriztatze-ko aurrekontua 2000. urtean onartu zuen Udalak. Inbertsioak 1.086.000 eurokoak

izan dira eta Bizkaiko Foru Aldundiak aurrekontuaren zati bat ordaindu du. Berriztatze lanak lantegi eskola batzuetako ikasleek egin dituzte.

Larragoiti jauregiari erabilera bat baino gehiago emango zaio: enpresa mintegia edo haztegia ezarriko da haren instalazioetan; langile eta enpresariak prestatzeko ikastaroak emango dira horretarako prestatutako geletan, eta industrialdeetako enpresek batzarrak egiteko aretoa izango dute. Beheko solairuan txoko bat atondu da, zamudioztarrek erabiltzeko. Jauregia kudeatzeko lanez Behargintza Txorierri arduratuko da.

Zeurea Da Aukerea kanpaina zabaldu da

Txorierriko Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak *Zeurea Da Aukerea* kanpaina jarri du martxan, Alkarbide Bizkaiko euskara zerbitzuen koordinazio gunearekin batera. Kanpaina 1990. urtean jaiotako gazteei zuzenduta dago eta horiek Batxilergo eta Lanbide Heziketako ikasketak euskaraz egitea du helburu. Horrela, bada, gida bana bidali zaie eta D eredua Txorierriko zein ikastegitan dagoen azaltzen zaie bertan. Halaber, Alex Sardui Gatibu taldeko abeslariak ikasketak euskaraz jarraitzea animatzen ditu gazteak, gutun baten bidez.

Batzilergoa eta Lanbide Heziketa euskaraz egin daitezke Txorierriko hurrengo ikastegi hauetan: Derioko BHI eta Politeknika Txorierri eta Loiuako Lauro ikastolan.

Mikel Zarateren omenaldia DVDan atera dute

Mikel Zarate hil zela 25 urte bete ziren 2004. urtean, eta Zorritzetan euskera alkarreak hainbat ekitaldi antolatu zituen urtariletik apirilera bitartean, lezamarraren omenez. Omenaldia DVD bitan kaleratu berri dute. Lehenengo DVDan omenaldiaren ekitaldi guztiak batu dituzte. Horrezaz gainera, Bego Vicario zinemagileak egindako argazki-muntaia eta Gaizka Peñafiel trikitilariaren abestiak ere sartu dira. Beste DVDan, berriz, Zarateren lan guztiak eta omenaldia dela-eta egindako beste idazlan batzuk jaso dituzte.

Txepetxa euskaltegiak bazkaria antolatu du

AEK-Txepetxa euskaltegiak irakasle, ikasle eta laguntzaileen arteko bazkaria izango du maiatzaren 14an, domekan, Derion. Bazkariak 15€ balio du eta izen ematea maiatzaren 9a baino lehenago egin behar da euskaltegian bertan, 94 454 39 67 telefono-zenbakian edo txepetxa@aeonet.net korreoko helbidean. Euskaltegian zain daukazazu!

Alaitz Artetxe lezamarra, etxean

Apirilaren 11n, hainbat lagun batu ziren Lezamara Alaitz Artetxeri ongi etorria emateko. Lezamarra 2005. urteko otsailean atxilotu zuten Arkaitz Ormaetxe “Pika” bere mutilarekin batera. Lagunek orduan azaldu zuten legez, poliziek ez zuten neska atxilotzeko agindurik, ezta etxean sartzeko baimenik ere. Baina logela arakatu eta Zutabe aldizkariaren ale bat aurkitu zuten; orduan, preso eroan zuten. Artetxek hamalau hilabete eman ditu kartzelan eta familiak 25.000 euroko fidantza ordaindu behar izan du, neska bertatik atera ahal izateko. Senideak eta lagunak apirilaren 11n Asturiaseko Billabonako kartzelara joan ziren, Alaitz etxera ekartzeko. Han, lorea oparitu eta agurra dantzatu zioten. Alaitz 22:40an ailegatu zen Lezamara eta bertan ehunka lagun zuen zain. Lore-sorta eman zioten; Agurra txistuz jo, eta Ekidazu

abesbatzak kanta pare bat eskaini zizkion. Ostean, neskak haren argazkia Herriko Tabernatik kendu zuen.



Bertoko elkartearen urteurrena ospatzeko ekitaldiak



Bertoko Soinu Tresnen Elkartek 10 urte bete ditu aurten, eta maiatzaren 6an, zapatuz, hainbat ekitaldi izango dira urteurrena ospatzeko: eguerdian, mago baten ikuskizuna izango da; ordu batean, trikipotea egingo da; arrastiko 3etan, herri bazkaria izango da, eta arrastiko 7etan, txalaparta saioa. Bertoko elkarteko neska-mutilek ere musika joko dute txalaparta saioaren ostean, eta gaueko 9etan, txorizo jana izango da; ostean, erromeria Ene Bada! taldearen eskutik.



Milaka lagun, Larrabetzuko Txakolin Azokan.— Apirilaren 9an, domekaz, Larrabetzuko V. Txakolin Azoka egin zen. Azoka horretara milaka lagunak joan ziren

2005eko uzta probatzera. Plazan 50 bat postu jarri zituzten eta goiz osoan ekitaldi batzuk antolatu ziren, hala nola topa ofiziala edo bertso-saioa, besteak beste.

Giro itzela Bertsozale Gazteen Egunean, Larrabetzun



Apirilaren 8an, Bizkaiko Bertsozale Gazteen Egunean hirugarren edizioa izan zen Larrabetzun. Bertan, eskualde desberdinetatik etorritako hainbat bertsozale bildu ziren.

Egun osoan giro itzela egon zen: goizean erronda musikala egin zuten tabernaz taberna, eta ostean, 120 bat lagunek parte hartu zuten herri-bazkarian. Arratsaldean, eskualdeetako bertsozaleen emanaldia izan zen eta Onintza Enbeitiak, Iratxe Ibarrek eta Oihane Pereak bertso saioa eskaini zuten. Gauean erromeria izan zen.

Egaña eta Lekue, Loiuko bertso-afarian

Maiatzaren 19n, 21:00etan, bertso-afaria izango da Loiuko Hotelean, Loiuko Lagunak Kultur eta Kirol Elkarteak antolatuta. Andoni Egaña eta Etxahun Lekue bertsolariek hartuko dute parte afarian eta Nahikari Ayo Getxoko Bertsolaritza Eskolako irakaslea izango da gai-jartzailea. Bertso-afarira joan nahi duten bertsozale guztiek Txorierriko ohizko lekuetan eros ditzakete sarrerak edota erreserba egin 607 95 61 96 telefono-zenbakira deituta. Sarrerok 15€ balio dute.

San Isidro egunaren ospakizunak

Maiatzaren 15ean, San Isidro baserritarren zaindariaren eguna izango da eta Txorierriko Baserritarren Elkarteek hainbat ekitaldi antolatu dituzte egun horretarako.

Batetik, Santi Mami Zamudioko Kooperatibari aitzolariak arituko dira 13:30tik aurrera eta 14:30ean bazkaria egongo da kooperatibari bertan.

Bestetik, Lezamako Kooperatibari meza izango da 11:30ean. Ostean, idi-probak egingo dira, eta bertan, Zamudioko Txaber Zaratek, Lezamako Jose Angel Bilbaok eta Mungiako Iñaki Lopategiek parte hartuko dute. Bazkaria 15:00etan izango da.

Eta Larrabetzun kalejira edukiko dute 10:30ean, txistulariek girotuta. Horrezaz gainera, meza eta euskal produktuen azoka egingo dituzte. Bazkaria 14:30ean izango dute.

Zaharrentzako II. Jaia, Sondikan

Maiatzaren 27an, Txorierriko Zaharrentzako II. Jaia egingo da, Txorierriko udalek eta Mankomunitateak antolaturik. Jaia Sondikako Goronda Beko kiroldegian egingo da, 11:30ean hasita; egun osoan hainbat ekitaldi izango dira: oparien banaketa, jokoak, bazkaria, magia ikuskizuna, dantzaldia... Izena maiatzaren 12tik 18ra bitartean eman behar da jubilatuen etxeetan. Sarrerak 10 euro balio du.

“Nire protagonistak herri xehekoak dira; herri xeheari ukatu egin zaio iragana”

Koldo Izagirre Pasaiako idazleagaz *Sua nahi, Mr Churchill?* ipuin liburuari eta beste hamaikatu gaizari buruz ibili gara *Literaturaz berbetan* Arrekikili Larrabetzuko euskera alkartearen txokoa; eta liburua hurragoko egin jaku ostean. Ez gara asetu eta ekinean joan gatzakoz barriro Koldori.

Testua: Gotzon Barandiaran

Geografia benetako eta era berean imaginarioa agertu gura izan dozu ipuinotan. Zerk eraginda?

Nik sei urte nituela aldatu ginen familia Pasaia

ko portura, aita bertako indar elektrikoaren ardura egin zutenean. Etxea eman ziguten ateliar mekanikoaren gainean, eta gure leihotatik errementariaren arragoa ikusten genuen atze aldera, eta aurrean berriz badia osoa genuen, etxetik irten eta zortzi-bederatzi pausora neuzkan ontziak, garabiak, bagoiak, lokomotorak... Memoria hori baliatu dut, bizitako errealtatea. Baina fikzioarako baliatu dut, eta, beraz, informazio zuzen hori ez dut helburu informatiborako erabili. Hor kokatu ditut ipuinak, baina ez dut portu baten historia egin.

Kosmopolitismoa hiriarekin uztartzen dan kontzeptua da, mestizaia globalizazioarekin eta altermundismoarekin, modan dago eta hori ei da politikoki korrektua. Zuek hori txikitzen ezagutu zenduen, Pasaia

ko portuan. Zein alde dago gaur goratzen danaren eta zuek bizitakoaren artean?

Bai, nik txikitzen ezagutu nuen hori, baina noski, orduan ez neukan intelektualizatua, ez nintzen kontziente. Orduan era natural batean gertatzen zen hori, egizu kontu

“Nire formazioaren urterik inportanteenak ikatz, fuel, langile, kable, bidoitzar, azetilen bonbonak eta motore trifasikoen artean eman nituen. Niretzako, eszenario eta langile horiek oso literarioak dira”



Pasaia

ko portua ez dela ez sobera handi eta ez sobera txiker, bien artekoa da eta bertan herria bizi da, San Juan, San Pedro, Trintxerpe... leihotik amua jaurti liteke itsasora. Harreman nahasi eta multiple bat gertatzen zen, lana etxepetan zegoelako: galegoa, euskara, ingelesa, alemana, gaztelania... Han orduan inori “Zelan?” edo “Zer moduz?” galdetua “All right!” erantzuten zizuten, “Olrrait!”, benetako mestizaia zegoen hizkuntzan, ohituretan, merkataritzan, janzkeran... Donostiako dendetan “anorak” prenda famatuak azaldu baino zatiaz lehenago geneuzkan pasaitarrok etxean, Ternuako “Saint Pierre et Miquelon” uhartean erosiak! Era naturalean bizi genuen hori, eta gaur modu programatuan egiten da, pentsamenduaren eta merkataritzaren multinazionalen bitartez. **Berbaldian aipatu dozu 36ko gerra zibilak markatu dauela gure Historia eta zuk txikitatiki jaso izan dozula horren barri etxean, bai gerra aurretik bai gerra ostean. “Historiak ez du etenik” azpimarratu**

gura izan dozu.

Nahiko asumitua daukagu, lelo moduan, gure aurretik beste batzuk “izan direlako garelako gu”. Baina hori ez da gure literaturan hain garden islatzen, eta niri asko interesatzen zitzaidan hori agerraraztea, batez be nire ipuinetako protagonistak herri xehekoak direlako, eta herri xeheari ukatu egin izan zaiolako iragana, historia bat eduki ez balu bezala.

Gerrak egindako pertsonaiak agertu dozuz liburuan, baita adierazo be, pertsonaia horiek ez-literariotzat hartuak izan direla eta direla egun ere eta zuk horrek agertzeko ahalegina egin dozula.

Ni ia hogeitaz bizi izan nintzen moilan, nire formazioaren urterik inportanteenak ikatz, fuel, langile, kable, bidoitzar, azetilen bonbonak, motore trifasikoen artean eta noski, langileen artean eman nituen. Niretzako, eszenario hori eta langile horiek oso literarioak dira, sekulako heroiak. Begira engantxadoreak: badator bagoi-lara txatarraz kargatuta, geltokira eroate-

*“Idazleok iragan
hurbilenera jo dugu,
geure derrotak eta geure
ezintasunak erakutsi
nahirik. Polita ez dakit,
baina bitxia
behintzat bada”*

ko prest dagoen bagoiekin egin behar du talka, eta hantxe kokatzen da engantxado-rea, bi topeen artean, eta lehenak azkenarekin talka egiten duenean berrogei kiloko kakoa jaso eta engantxatu egiten zituen bata bestearekin. Bagoiek martxan jarraitzen zuten halanbe, inertziak, eta engantxadorea markurtu eta burdinazko gurpil bel-durgarri haien artekin irteten zen lau hankatan bagoi azpitik... Horrelako tipoz eta lanez zegoen betea portua. Gure aitak zazpi lankide galdu zituen urte haietan, elektrokutatuta. Eta jende horrek, heroi isil horiek, zergatik ez dute eduki behar arazo pertsonalik?

Historiak galtzaileak ahaztu egin ditu eta zu derrota eta duintasuna eskutik oraturazoten ahalegindu zara.

Horregatik errebisatzen da aldiro-aldiro historia, okerrak zuzentzeko eta zuzen ustekoak okertzeko. Nire inguru ez-profesional guztia, baita gaur egun ere, proletarioa da, metalgintzakoa gehienbat. Gaur egungo derrotatuak dira. Baina duintasun handiko pertsonak aldi berean, ez dute etsi eta bizimodu jator baten alde saiatzen dira. Logikoa zen ni horrelakoen alde egotea. Eta egia esango badut, jende hori askoz interesgarriagoa, alaiagoa eta kultuagoa da, bere estiloan, burgeskume multzoa



*“Protagonistak aldatu
egiten dira ipuinean
barrena, ez dira inoiz
pertsona bera izaten
hasieran eta amaieran,
eboluzio batean dabilta”*

baino.

Gaurkoan argi utzi gura izan dozu liburua ez dozula hutsune bat betetzeko planteamentu teorikotik egin, ez dala hori izan zure helburua, ibilian egin dozula bidea.

Ez, aspaldian barruan neukan ondare bati eman diot forma, noizbait. Horixe izan da prozedura, ez naiz abiatu erabaki intelektual edo kultural batetik, premia batetik baizik, izugarritzko beharra neukan idatzi

nuena idazteko. Ipuinak idatzi ahala kon-turatu nintzen ziklo oso bat neukala abiatua.

Azken hamar urteotan idazle askok leku-tu dozuez zuen kontakizunak gerra aurre-an, gerran edota gerra ostean, gure Historia hurbilaren berrirakurketa egite-ko beharra dozuelakoan?

Bai, jakina. Historiak kontatu ez digun hori kontatu nahi izaten dugu, horregatik gara idazleak, literatoak. Historialari abertzaleak Nafarroaren Erdi Aroa eta hainbat mito sasi-historiko berpizten saiatzen diren une berean, idazleok iragan hurbilenera jo dugu, geure derrotak eta geure ezintasunak erakutsi nahirik. Polita ez dakit, baina bitxia behintzat bada.

Oteiza, mendekaria deritzon ipuina halan hasten da: “Elkarri izena baino maizago izenaren laburdura edo txipigarria edo goitizena esaten genion gero eta aspaldiz ederragoko garai hartan...”. Liburua idatzi ahala nostalgia sentidu dozu?

Egongo da horretatik ere, baina ez dut uste nostalgiaz idatzitako ipuinak direnik. Lehen komentatzen genuen bezala, ipuinak atzera eta aurrera egiten dute, aldian behin etenda dagoela dirudien hari baten muturrean gagoz. Iragana gaurkorako erabili dut, ez dut bertan goxo egin historian, prozesu batean kokatu ditut pertsonaiak, eta hauxe ere esan behar nuke: dialektika batean bizi dira, protagonistak aldatu egiten dira ipuinean barrena, ez dira inoiz pertsona bera izaten hasieran eta amaieran, eboluzio batean dabilta.

Gaur esan dozu ipuinekiko, generoareki-ko, zorretan egon zarala. Zergatik zorretan?

Bada lehendik idatziak neuzkan ipuin-liburuek ez nindutelako asetzen, eskasak iruditzen zaizkit oro har. Baneukan zor hori, bai.

Auzolandegietan izena emateko epea zabalik

Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritzak udako auzolandegietan parte hartzeko izena emateko epea zabaldu zuen martxoaren 24an. Izen ematea Interneten bidez egin daiteke.

Aurten sei auzolandegi jarriko dira martxan Euskal Herrian: lan arkeologikoak egitea Iruña/Veleia erromatarren garaiko hirian (Iruña de Oka) eta Arrolako irunean; errege-galtzada berreskuratzea Galdakaon; XVI. mendeko zubia zaharberritzea eta ondare etnografikoa berreskuratzea Artziniegan; I-diazabaleko artzain-txabolak eta Donejakue-bidea konpontzea; eta Estibalizko monastegiko liburutegiko inbentarioa egitea. Kultura Saileko Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritzak 240 plaza prestatu ditu auzolandegi horietan

“240 plaza prestatu dira Euskal Herriko auzolandegietan parte hartzeko; 500 plaza kanpoko auzolandegietarako”



parte hartzeko. Halaber, beste 500 plaza eskaini dituzte, Euskal Herritik kanpoko auzolandegietara joateko: Estatuko beste Autonomi Erkidegotako edo atzerriko auzolandegietara, hain zuzen ere.

Izen ematea Interneten bidez egin dezakezu: Gazteaukera webgunean sartu eta aukera ezazu gehien gustatzen zaizun auzolandegia. Formularioa bete eta 72 euro ordaindu beharko duzu, eskatutako plaza gordetzeko. Eta plaza hori behin-betiko lortzeko, etxera bidalitako dokumentazioa

behar bezala bete eta sinatu beharko duzu. Ondoren, Eusko Jaurlaritzako Gazteria Zuzendaritzara bidali beharko duzu, NANaren fotokopia eta erroldatze-egiaztagiria erantsita. Beste erkidego batera joateko asmoa izanez gero, ordainketaren frogagiria gehitu beharko diezu eskatutako dokumentuei. SMS edo e-mailen bidez jakinaraziko dizute plaza lortu duzun ala ez.

Euskal Herriko auzolandegietan izena emateko epea maiatzaren 23ra arte

izango da eta atzerriko plazak eskatzeko maiatzaren 5era arte. Epe hori itxi ondoren, libre geratu diren plazak lortzeko aukera izango duzu maiatzaren 25etik uztailaren 31ra bitartean. Azken epe horretan, Euskal Herriko plazak Interneten bidez eskatu ahal izango dituzu, baina Kultura Sailaren lurralde-zerbitzuetara joan beharko duzu gainerakoak eskatzeko.

Informazio gehiago:
<http://www.gazteaukera.euskadi.net>

Leire Merino, Txorierri Politeknika ikasle ohia

“Bekaren baldintzez oso ondo jabetzea ezinbestekoa da”

Martxoan praktikak egiteko garaia zabaldu zen Txorierri Politektikan. Praktika horiek hiru hilabeteen izaten dira eta ikastegian ikasitakoa osatzeko aukera ematen diete ikasleei. Leirek Erregulazio- eta kontrol-sistema automatikoak heziketako zikloa iaz amaitu eta ez zuen aukera galdu: Irlandara abiatu zen, Leonardo bekari esker.

Zergatik egin praktikak atzerrian?

Ikasketak bukatu ostean, saritzat hartu nuen. Horrezaz gainera, ingelesa hobetu eta esperientzia berri bat izan nahi nuen. Lehenengo hilabeteen ingelesezko klaseak jaso nituen eta beste hilabete biak telekomunikazio-enpresa batean eman nituen.

Zeintzuk izan ziren zure eginbeharrak bertan?

Lurreko Telebista Digitaleko instalazioak egiten genituen etxeetan, sei bat egunero. Batzuetan beste talde batekin elkartu eta Internet eta WiFiz sareratzeko konexioak ere egiten genituen.

Zailtasunik topatu duzu?

Hizkuntzaren aldetik bai, erreminta askoren ingelesezko izena ez nekielako. Tresnaren bat ekartzeko eskatu eta nik beste bat eramaten nuen. Baina, beno, izen horiek ikasten dira azkenean eta ondo konpontzen zara. Lankideak ere oso jatorrak ziren eta horrek asko laguntzen du.

Baliagarriak izan dira praktikak?

Bai. Egia esan, Irlandan egindako lanak zerikusi gutxi zuen nik ikasitakoarekin, baina hala ere probetxua ateratzen diot. Izan ere, instalazioak noiz edo noiz egin behar ditut –etxeetan ez, beharbada; baina bai enpresetan-, eta ikasi dut nola egin.

Eta zertan ibili zara bertan, praktiken ondoren?

Produktuak pisatzeko eta etiketatzeko makinekin ibili naiz Derioko enpresa batean. Horiek enpresako makinari inportanteak eta baliagarriak ziren. Hain koardro handiak egitea gauza berria zen niretzat eta oso pozik irten naiz bertatik.

“Egindako lanak zerikusi gutxi zuen nik ikasitakoarekin, baina hala ere probetxua ateratzen diot”

Irlandara bueltatuko gara: lanean ez zenuen egun osoa emango ...

Euskal Herriko eta Madrilgo hainbat lagun batu ginen bertan. Egunero taberna berean elkartu eta billarrean aritzen ginen... Edan gutxi egiten genuen, edaria oso garestia zelako. Guztiok kexa bera izan dugu: janaria eta parranda. Beste alde batetik, irlandarrek oso ondo hartzen gaituzte euskaldunok, izan ere horiek ere gatazka latza bizi izan dute.

Bertako familiarekin oso esperientzia ona ez duzu izan...

Ez. Nik ulertzen dut etxearen eta herriaren araberrak ohiturak ezberdinak direla, baina... Lehenengo egunean giltzak eman eta nahi dudana egiteko baita nuela esan

ziguten (“Ba, bale!”). Emakumea nire janari arduratzen zen hasiera batean; hala ere, lanean hasi eta hozkailua hutsik topatu dut behin baino gehiagotan. Inoiz izozki bat janda joan naiz lanera... eta egundoko hotza zegoen, gainera! Nire janaria prestatzeaz ez ezik erosketak egiteaz ere arduratu behar nuen, beraz. Eta etxearen garbitasuna! Zomorroak eta guzti topatu ditut ohean! Harreman handirik ere ez dugu izan elkarrekin...

Dena dela, animatuko zenituzke gazteak atzerrira joatera, praktikak egitera?

Bai, oso esperientzia aberasgarria delako eta jende asko zein bizimodu ezberdinak ezagutzen direlako. Hori bai, bekaren baldintzez oso ondo jabetzea aholkatuko nieke: zer dago barruan eta zer ez. Nik ez nuen egin eta sorpresaren bat edo beste izan nuen.

*Testua eta argazkia:
Itxaso Marina*



Bizi dugun globalizazio garai honek, hizkuntzak menperatzearen beharra nabarmen areagotu du. Asko dira urtero atzerrian egonaldi luze zein ertainak egitea erabakitzen duten gazteak. Munduko bazterrak ezagutuz, beste ikuspuntu batekin ikusten dugu mundua, helduago

egiten gara, eta ordura arte ulergaitzak ziren hainbat gauza ulergarri bilakatzen dira. Beraz, zeren zain zaude bidaiazale, amets egitea polita bada ere, are ederragoa dugu errealitatea.

Testua eta argazkiak: Maitane Urrutikoetxea

Pedro Dañobeitia

“Ez dut besterik gabe inor epaitzen, arraza zein kultura desberdinekoa izanda ere”

Tailandiak eta Euskal Herriak bat egin dute 17 urteko Tarn gaztearen eskutik. Pedro eta Teresa lezamarrak ditugu bidaiazale alai eta ikasle nekaezin honen guraso berriak. Azken hauen eskuzabaltasunak ez du mugarik.

Kultur aniztasun aberasgarria sortarazi duzue zuen etxean, zerk egin zaituzte horren partaide?

Kultur ezberdinekiko interes bizia betidanik izan dut, baina orain artean horretara besterik ez zen mugatzen. Iaz, egunkaria irakurtzen nengibela, elkartrukea burutze-ko aukera-eskaintza izan nuen aurrez aurre, harremanetan jarri eta informazioa eskuratzearekin batera hasi zen prozesua.

Alde biko hartu-eman nagusi...

Gaztea gure egunerokotasunaren parte sentitzea da gure ahalegin guztien oinarria: familiakide bilakatzea, hain zuzen ere. Bere ikasketez zein egoeraz arduratzen gara eta eskola ostean hainbat jarduera egiten ditu. Gaztelania zein euskara ikastea ditu astera-

Tarn beste bat da Dañobeitia familian



ko jarduera nagusiak.

Zein zen hona etorri aurretik zuen gaztelania maila? Elkar-ulertzea...

Bere herrian gaztelania klase apur batzuk jaso izan zituen eta horiek hizkuntzarekiko prestutasuna areagotu zioten. Hizkuntza ez zuen menperatzen, izan ere, oinarritzko eza-gupena bertan lortu izan du.

Ezjakintasunak itxaropenez beteriko uneak sortu al zituen aireporturako bidean?

Urduritasuna eta jakin-mina nagusitu izan ziren bera etorri artean. Jakin, bagenekien bere profila zein zen, bi nesken artean erabakitzea egokitu baitzitzaigun. Beraien argazki zein deskribapenak izan genituen esku artean. Erabakia datu gutxi batzuetan oinarritzen da, batik bat intuizioa izaten da

nagusi. Guk nahi genuena Asia aldeko neska bat zen.

Bi herrialdeen arteko desberdintasunek moldatze beharra dakar...

Asiarra izan arren, mendebaldeko bizimodua ikusten da bere izaera zein gustuetan. Bere bizi-maila bertokoen batez bestetik gora egotea da honen eragile nagusienetarikoa bat. Guk berez, ez dugu bestelako alderik antzematen, berak bai ordea pertsonen arteko tratatu irekian zein janari ohituretan.

Aurreiritzietan oinarritutako epaileak izan ohi gara sarritan...

Adimen irekiko pertsona nauzu, ezezaguna dena hurbila egin eta ikasteari interesgarria deritzot. Ez dut besterik gabe inor epaitzen, arraza zein kultura desberdinekoa izanda ere.

“Tarn gure egunerokotasunaren parte sentitzea da gure ahalegin guztien oinarria”

“Asiarra izan arren mendebaldeko bizimodua islatzen da bere izaera zein gustuetan”

“Aita zein ama hitzak erabiltzen ditut nire gurasoak izendatzeko”

Zerk erakarri zintuen Euskal Herria jomuga legez aukeratzeko?

Guk soilik herrialdea erabaki deza-kegu, bertoko eskariek erabakiko dute gerora gure geltokia.

Moldatzeko ahaleginak bereziki....

Epeltasuna da nagusi Tailandian, eguraldi kaskarrera ohitzea ez da horren erraza. Janariari dagokionez, ezberdintasuna begi bistakoa da, hala ere, ezagutzen ez dituzun janak gustuko bihurtzen dituzu denbora-ekin.

Alderik al da zure itxaropen eta aurrez aurre aurkitutakoarekin?

Familiak egin izan didan harrera zoragarria izan da, aita zein ama hitzak erabiltzen ditut nire gurasoak izendatzeko. Nire nebeekin jolastea zein lagun berrie-kin irtetea atsegina dut oso.

**Zeharo lanpetuta ibiltzen zara aste egune-
tan, ezta?**

Bai, aste bitartean ikasketak dira nagusi



nire egunerokotasunean. Institutura zein hizkuntza eskolara joan behar dut egune-
ro. Euskara da, ordea, traba handienak sor-
tzen dizkidana, zaila eta desberdina zait
oso. Azken hau jolas zein abestien bitartez
barneratzen dugu. Bertora etorri aurretik
ez nuen hizkuntza berezi honen berririk.

Aisialdian gustukoen...

Lantzean behin, nire egoera berean daudenekin biltzen naiz, antolaturi-
ko irteera zein jarduera bereziak burutzeko. Haiekin harremanetan egotea gustuko izaten dut, gure artean gaztelania hizkuntza baka-
rra bada ere. Etorkizunean espe-
rientzia honi esker lortutako erdara mailak aukera asko bideratu ahal dizkit.

Etorkizuna lantzen zabiltzala badakit.

Gaztelania filologia dut helburu. Tailandian ele anitza izatea oso garrantzitsua da. Ahal izango banu luzarorako geldituko nintzateke.

Ba al zeneukan gure herriaren berririk hemen izan aurretik?

Nire jaioterriko lagun batek, Euskal Herriak dituen zenbait berezitasunen berri eman zidan. Bestelako guztiak nire kabuz ezagutu ditut. Izaera handiko herri duzue.

Txepetxa AEK euskaltegia, 20 urte Txorierrri berreuskalduntzen

Aurten 20 urte bete ditu Txepetxa euskaltegiak. Beste 10 urte atzera egin eta AEKren sorrerarekin egin dugu topo; beste hamarkada bat atzeratu eta Txorierrri berreuskalduntzeko lehen saioak aurkitu ditugu.



Testua: Bestorrene

Euskararen aldeko lehen mugimenduak
Josu Naberan, Belen Gana eta Jabi Agirre nagusien alfabetatze lanean hasi ziren 1967an. Hurrengo urteetan klase gehienak umeei zuzendutakoak izan ziren. Euskaltzaindiko batzar baterako dokumentuan agertzen denez, 1973an Larrabetzun 15 nagusi eta 50 ume zeuden ikasten (hauek Kili-Kili metodoarekin); Larrondon neska talde bat; Loiu 8 ume eta Goierrin 20 gazte.

1975-1978, euskara ikastearen booma
1975an euskaldun kontzientzia areagotu egin zen herrietan, politikan mugimendu handia zegoen eta Franco urte horretantxe hil zen. Aldaketa ugari zetorren. Bilbon

egindako batzar batean AEK Alfabetatze-Euskalduntze Koordinakundea sortzea erabaki zen, Goierriko Xabi Oleaga tarte-ko. AEK-k herrietan berez sortutako taldeak koordinatuko zituen eta laster hasiko ziren klaseak lantegietan (Degremont, Indume-tal, Sacep, Dunlop...).

Metodo berriak ere agertu ziren: Eus-kalduntzen-1, 2, 3 eta Alfabetatze hasieran;

eta Jaldi Hadi eta Hitz Egin geroago.

Klaseak elizaren lokaletan ematen zituzten, baina laster hasi ziren arazoak, izan ere, irakasle batzuei klaseak ematea debekatu zitzaien, “ateoak” zirelakoan. Lehen udal-hauteskundearen ondoren, klaseak eskoletara pasatu ziren apurka-apurka.

1979-1984, egonkortasuna eta eklipsea

AEK guztiz finkatu zen Txorierrin aro horretan. Eraketa zein didaktika batzarrak sarritan egiten ziren, ikasteko ordu kopuruak hazi egin ziren (6 astero), irakasleak kobratzea “normal” ikusten zen... 1980an lehen Korrikak eta bere leloak “Zuk ere esan bai euskarari!” Txorierrri ere zeharkatu zuten. Herri guztietan zeuden gauesko-lak eta Errigoitin udako barnetegia antolatu zen.

Baina eklipsea ere heldu zen: matrikulazioa jaitsi eta gaueskolak desagertuz joan ziren. Derion eta Larrabetzun zentralizatu behar izen ziren taldeak. Gainera udal batzuek AEKri eskoletan klaseak ematea debekatu eta beraiek klase horiek antolatzeko hasi ziren.

1985, aro berria: Txepetxa euskaltegia.

Korrika-4koTxorierrriko Batzordean euskaltegia sortzea erabaki zen, egoerari astindua emateko. Horrela, bada, 1985eko irailaren 20an Txepetxa euskaltegia inauguratu zen Derion, San Miguel auzoko pisu batean. Sabin Gaztañaga buru zela 130 ikasle matrikulatu ziren.

“Lehenengo euskaltegia Derioko San Miguel auzoko pisu batean inauguratu zen 1985ean. Korrikaren diruari esker, gaur egungo lokala zabaldu ahal izan zen hurrengo urtean”



Lana ez da klasera
besterik mugatzen:
irteerak, erakusketak,
hitzaldiak eta
abar ere egiten
dira, euskara edo-
zein testuinguru-
tan praktikan jarri
ahal izateko

“Kultura hizkuntzeagaz batera joatea inportantea da guretzat”

Korrikaren diruari esker, lokal berria (oraingo bera) zabaldu zen hurrengo urtean eta laster emango zitzaion hasiera kultur gintza bultzatzeko plan oparo bati.

Txorierin euskaltegi bat funtzionatzen zuela ikusita, HABEk ere jarri zuen berea. Udal euskaltegia 1988an zabaldu zen.

Txepetak bere martxa jarraitu zuen, Athletic-en klaseak emanez, ekintzak burutuz: Txalaparta ikastaroa, Euskal Musika tresnen erakusketa, JAFF jaia, Futbito liga...

Azken urteak

Belen Gana bertako arduradunaren esanetan, lana ez da euskaltegi besterik muga-

tzen. “Hainbat urtetan herri ezberdinetako guraso elkarteak batera lan egitea be inportantea da, lantegietan klaseak emotea, gazte betetako EGA taldeak izatea ...”

Metodologiari dagokionez, AEKren irakasteko modua bera da aspalditik: ikasten dena praktikan ipintzea. “Osotasuna landu behar da, baina garrantzitsuena berba egitea da, herri bateko partaide sentitzea. Kultura hizkuntzeagaz batera joatea inportantea da guretzat. Ikasle asko euskararen aldeko militanteak bihurtzen dira; Korrika batzordeak dira horren lekuko”

HABEkiko harremanak orain hobeak direla dio. “20 urte baino gehiago dira ekintza bidezko irakaskuntza lantzen dugula AEKn, orain “atazetan” oinarritutakoa (HABEk onartuta). Gauza bera azken finean. Orain dela bi urte mailaketa azterketetara aurkeztu hasi dira ikasleak eta horrela diru bat berreskuratzea lortzen dute”.

Txepetxa sortu zenetik hona, 100tik

Sabin Gaztañagak arrastoa utzi zuen euskaltegian

Goierriin, Erandio Goikoan jaio zen 1954an. Gazte gaztetatik pertsona konprometitua izan zen eta Frankismo garaian politikan ibilita kartzela ere ezagutu zuen.

Gaixotasun latza pasa ostean, euskal kulturaren murgildu zen. AEKn sartu eta 1985ean Txepetxa euskaltegiaren sorreran parte hartu zuen, arduradun legez lehen urteetan.

Urte batzuk geroago AEK-ko Bizkaiko arduradun izendatu zuten. Korrika-7ko antolaketan ibili eta Baionan azken kilometroa korritzera zihoala, buruko minbizia birsortzen zitzaioela nabaritu zuen. Juxtu-juxtu lortu zuen amaierako mezua mikrofonoetatik irakurtzea. Hilabete gutxira hil zen, 1992an.

Sabinek esaten zuenez “euskaltegia txepetxa edo epetxa txoria legez izan beharko da, txikia, baina berton ondo sustraitua”.

gora ikasle izan dute urtero Larrabetzutik Erandio Goikoaraino. “AEKn klaseak ematea militante parte bat edukitzea dakar, baina baldintzak asko hobetu dira gaur egun. Loteria, korrika eta abar egiten jarraitu arren, horiek Nafarroa eta Iparraldeko euskaltegiak finantziatzen laguntzeko dira. Ez dugu ahaztu behar une latzak ere pasatu ditugula, euskararen kontrako erasoak, Garzon... ”

Parte hartzea: Txorierriko euskara elkarte guztiek AEKren partaidetza izan dute. Mikel Zarateren omenaldia, Berba lagunak, bertso ekitaldiak, Tximintx euskara elkarte...

Kulturgintza: Euskal kultura ezagutu, landu, praktikatu, parte hartu. Berba lagun, ekitaldiak, aste buruak, txangoak, hitzaldiak, antzerkira irteerak...



Erabilera: Ikasleek ikasten dutena erabiltzeko eskatu. Konbentzitu, lagundu.



AEK-k 30 urte Txorierrin-Txepetxa euskaltegiak 20



Lorpenak: Euskal Herri osoko ikasle/irakasleen berdintasun eredua izan dadin. Korrika, txosnak, material salmenta, loteria eta bestelako zozketak.

Irakastea: 1. eta 2. maila, Hizkuntz eskakizunak, EGA, alfabetatzea, errefuertzua, hobekuntza.

Laguntzaileak: Txorierriko KORRIKA inguruko herrietako ekitaldiak eta karrerako partaidetza zoragarria izaten dira. Laguntzaileak eta ikasle ohiekin kultur ekitaldiak egiteari ekiten diegu.



Sondikako ikasleak: "Ikasle asko azterketaren aurkakoa da, baina euskaraz bizitzeko urratsak emateko prest daude eta hori erakusten dute euskara eginez eta kultura ekintzetan parte hartuz".

Irakasleak: "Euskara irakasteaz gain, kultura lantzea eta herrian txertatzea da gure eginkizuna. Berba egitea ezinbestekoa da guretzat Euskalerrria euskalduna nahi badugu".





Zamudio/Sondikako familia euskalduna: "AEKn ezagutu genuen elkar eta familia euskalduna osatu dugu. Euskara erabili eta birbaloratu beharko genuke eta Txorierriko herri guztietan modan ipini euskaraz bizitzea".



Ikasle izatetik irakasle izatera pasatu diren derioztarrak: "Lehen urratsetatik ikasten hasi eta euskara irakaslea izateraino Txepetxa euskaltegian. Euskarak merezi du, herriak behar du".



Lezamako ikasleak: "Konpromiso naturala da gero eta jende gehiago euskaraz bizitzea, geugaz euskaraz gura baduzu!"



Larrabetzu/Morgako EGAtaldea: "EGA, hizkuntz eskakizunak, maila azterketak gainditzeko prestatzea primeran dago, baina euskaraz ez bagara bizi dena da alperrekoa. ".

Derio motorrak berotzen hasi da

Maiatzaren 12tik 15era bitartean, San Isidro jaiak izango dira Derion eta betiko lez, ume, gazte zein helduentzako ekitaldi paregabeak antolatu dituzte Udalak eta jai-batzordeak. Horrela, bada, kirola, txapelketak, musika eta tailerrak edukiko ditugu lau egunen zehar.

Jai egitaraua

Maiatzaren 12a, barikua

19:30: Konpartsen jaitsiera; lehiaketa eta animazioa Gureztat eta Kuklux fanfarreekin.

20:30: Pregoia; txitxiburduntzi

21:00: Break dance erakusketa, Mikel Deuna plazan

21:30: Eskupilota partida. Ostean, kontzertua txosnetan: Piztiak eta Sorkun

22:30: Fanfarreak, Urkiola kalean

23:00: Berbena; Trio Haker

01:00: Cristina Duval vedette. Humore eta dibertsioa

Maiatzaren 13a, zapatua

10:30: Patinatze "on line", Bilboko Zona Verde patinatze taldearen eskutik

11:00: Mitologia eta aurpegi margotzeko tailerra, oinezkoentzako aldean

13:30: Ipuin kontaketa

16:30: Two-ball txapelketa, Derio saski baloi taldearen eskutik

18:00: Dantzak, Laiñomendi taldearen eskutik. Ostean, *Giramondo* kale ikuskizuna, El Negro y el Flaco taldearen eskutik. Oinezkoentzako aldean

23:00: Varadero orkestra

22:30: Kalejira, Perfusion taldearen eskutik

Maiatzaren 14a, domeka – Sukalki Eguna

(Sukalki txapelketan parte hartzeko, izena azokan eman behar da)

10:30–14:30: Elikagai eta Eskulan XI. Azoka: txakolin dastatzea, umeentzako tailerrak...

12:00: Taekwondo erakusketa, herri ikaste-

txean

18:00: Argazki, briska eta sukalki txapelketen sari banaketa. Ostean, dantzak orkestra baten eskutik

20:30: Kale antzerkia: *Tetrarip*, *azken ontzia* antzezlanea, Trapu Zaharra taldearen eskutik. Oinezkoentzako aldean

Maiatzaren 15a, astelehena

11:30–14:00: Umeentzako parkea

12:30: Marrazki txapelketa

16:30–19:30: Umeentzako parkea

17:00–19:30: Umeentzako herri kirolak eta jolasak, Kulki taldearekin eskutik

19:00: Marrazki eta konpartsa txapelketen



sari banaketa

19:30: Idi probak, probalekuan

Jaien amaiera, dantza eta txokolatada

(Oharra: Ekitaldiak –jai egitarauan zehaztutakoak izan ezik– Herriko plazan izango dira; euria ari badu, kiroldegian)



Kale antzerkia, Euskal Herritik eta Bartzelonatik

TETRARIP, azken ontzia

Trapu Zaharra antzerki taldearen lana. TETRARIP, hileta enpresak, hurrengo eskaintza hau egiten die bezeroei: hiltzeko orduan, nahi duten pertsonaiarengan berraragitzea. Horrela, bada, fase terminaleko gizon batengana doaz enpresako langile bi, baina lana zaildu egingo zaie.

Antzezlanak hiru eskenatoki ditu: hileta enpresako autoa, gizonaren etxeko ataria, eta horien arteko bidea. Bide horrek heriotzatik datorren jendeak ikusi omen duen tunela irudikatzen du. Era berean, hainbat gai lantzen dira bertan: bakarrik bizi diren pertsonak, langabezia eta aldi baterako laneko enpresak, besteak beste. Antzerkia maiatzaren 14an, 20:30ean izango da oinezkoentzako aldean.

Giramondo, il piu piccolo spettacolo del mondo

Bartzelonako El Negro y El Flaco konpainiak *Giramondo* kale ikuskizuna aurkeztuko du maiatzaren 13an oinezkoentzako aldean. Italiatik herrira ailegatu dira komediantek bi trizikloz. Hainbat herritan antzeztu ostean, plazara deituko diete umeei zein helduei, euren antzezpena ikus dezaten. Komediantek umore sinple eta zuzena erabiliko dute, gezur-irudiko malabarismoak egingo dituzte eta publikoa gogo bizitan jartzen saiatuko dira. *Giramondo* tarantela-erritmoko ikuskizun dardarikorra da eta bere pertsonaiek italiara makarronikoz egiten dute.

Break, euskal rocka eta samba



Sorkun / Argazkia: Joseba Martin

San Isidro jaiak soinu zuzen baten datoz aurre; ume, gazte zein helduei zuzendutako soinu eta ekitaldi baten, hain zuzen ere. Horrela, bada, break dance erakusketa egingo du barikuan Mikel Deuna plazan 21:00etatik aurrera eta ostean, Piztiak taldeak eta Sorkunek kontzertua eskainiko du txosnetan. Piztiak taldekoek euskal rocka egiten du eta euren azken lanak *Euriaren zain* du izena. Beste bi diska ere kaleratuta dituzte: *Zero* eta *Argia eta Itzala*. Beste alde batetik, Sorkunek *Duna* bere bigarren bakarkako lanaren abestiak eskainiko ditu eta *Onna* bere lehenengo diskari ere errebaso egingo dio, ziur asko. Baina musika eta animazioa ez dira faltatuko gau osoan zehar: giroa alaitzeko fanfarreak izango dira eta Trio Haker taldea arituko da berbenan 23:00tik aurrera. Cristina Duval vedetteak humorezko ikuskizuna antzezko du.

Eta jai-giroak ez du etenik izango! Izan ere, Varadero orkestraren musika dantzatzeko aukera izango da zapatuan eta, horrezaz gainera, Perfusion taldeak samba erritmoak eta latindar dantzak uztartzen dituen kalejira zoragarria egingo

du. Perfusion taldekoek bizitasun handiko ikuskizuna eskainiko dute. Afrika, Europa, Ekialde, Karibe eta Hegoamerikako kulturetan oinarrituta, aniztasuna eta integrazioa jorratzen dituzte.



Perfusion taldea

Mari, Basajaun, Tartalo eta lamiak, jaietan

Zapatuan euskal mitologiari buruzko tailerrak egongo dira goizean, Portal 21 taldearen eskutik. Tailerrok 4 eta 12 urte bitarteko umeei zuzenduta daude eta bertan euskal pertsonaia mitologikoen erakusketa izango

da, pertsonaia bakoitzari dagokion azalpena eta guzti. Horrezaz gainera, pertsonaien maskarak egiteko aukera izango dute umeei eta Mari, Basajaun eta lamiaren kontakizunaren gainean arituko zaie ipuin kontalari bat.



Irudia: Juan Luis Landa. *Euskal Herriko leindak* liburua



Umeentzako tailerrak, azokako nobedadea

Igandean Elikagai eta Eskulanen XI. Azoka izango da 10:30etik 14:30era bitartean. Bertan 80 bat postu jarriko dituzte eta horietako zazpi Txorierriko txakolin ekoizleenak izango dira. Kopa bat erosi eta nahi beste txakolin edan daiteke posturik postu. Horrezaz gainera, Euskal Herriko produktuak salgai eta ikusgai egongo dira: barazkiak, gazta, ogia, sagardoa eta eztiak, besteak beste. Emu-haragia dastatzeko aukera ere egongo da.

Baina azokak nobedadeak dakartza. Horrela, bada, umeei zuzendutako ereintza eta talo-tailerrak egingo dituzte. Poniak eta beste animalia batzuk ere eramango dituzte azokara.

Two-ball, binakako jaurtiketa-txapelketa

Zapatu arratsaldean, Two-ball txapelketa izango da eskolan, Derio saski baloi taldeak antolatuta. Txapelketan edonork har dezake parte. Kategoria bi osatuko dira: haur kategoria, 14 urtetik behera-

koentzat; eta nagusien kategoria, 14 urtetik gorakoentzat.

Txapelketa honela egingo da: lurrean borobil batzuk margotuko dira, eta partehartzaileek, minutu baten, bertatik

ahalik eta gehienetan baloia saskian sartzen saiatuko dira. Borobil bakoitzari balio bat dagokio eta puntu gehien batzen dituen ekipoak irabaziko du txapelketa.

Biregarro ehiza eta arrantza elkarte

“Gero eta leku gutxiago dago ehiza egiteko”



Ibarak adiskidetasuna goraipatzen du

Txorien herrian bizi garen ez da harritzekoa Derio, Loiu eta Sondikako herritar batzuek ehiza egiteko zaletasuna izatea. Horiek Biregarro elkartearen bildu ziren aspaldian, Iñigo Ibarra elkarteburuak esan digun bezala.

Noiz sortu zen elkarte?

Duela 40 urte martxan zegoen, baina hala ere 1992an hasi ginen seriotasunez hartzen. Garai hartan ehiza-postu finko batzuk sortzea proposatu zuen Aldundiak, ehiztariak euren kabuz ez aritzeko. Lehen ez zegoen arazorik, baina orain etxe asko daude mendian eta batzuetan jabeek ez dituzte ehiztariak ezagutzen. Orduan, elkarteetakoek tokian tokiko postuak antolatzen ditugu; antzina, aldiz, baimenak baino ez genituen kudeatzen.

Zenbat kide dauka elkarteak? Nolakoak dira bazkideak?

Taldean 54 kide inguru gaude. Gehienok 35 eta 45 urte bitarteko gizonezkoak gara. Eta batez ere txorierritarak, noski.

Zertan datza jarduera?

Lagunak garenez, sarritan gaude harremanetan. Irailetik otsailera arte egutegia presatzen dugu eta postuak arautu ere bai. Gainera, bilerak egiten ditugu eta informazioa eskaintzen diegu bazkideei. Horretarako, Bizkaiko Federakundeak antolatzen dituen bilkuretara joaten gara, arau edota aldaketen berri izatera. Nik kirol-tiro lehiaketak ere antolatzen ditut Bizkaian. Azken batean, lotura gara ehiztariantzat: hitz egiten dugu lurren jabeekin, kontrolpean dauzkagu postuak, mendia garbi mantentzen dugu...

Beste alde batetik, plater-tiro atala dugu eta Espainiara zein Portugalera joan gara txapelketetan parte hartzera. Gutako bat, Damaso Zubiaur hain zuzen ere, elbarritua da eta oso tiratzaile ona da.

Zertan dautza postu horiek?

Hainbat postuk osatutako ibilbide batzuk daude, mendi tontorretatik gertu batez ere. Ehiztarien artean postuak eta bakoitzari dagokion eguna zozketatzen dira. Postu guztietan kartelak daude eta ehiztariak ezin dira kartel horiek mugatzen dituzten eremuetatik mugitu. Postuak geuk banatzen ditugunez, badakigu gauzak egin behar diren moduan egiten diren ala ez.

Non jarduten duzue?

Baliteke etorkizunean Sondikan dagoen Artxandaren mendi-zatian ere jardun ahal izatea, baina momentuz Lauroeta aldetik ibiltzen gara. Gero eta leku gutxiago dago ehiza egiteko. Lehen Gatika edota Mungia leku aproposak ziren, baina hainbat eta hainbat etxe eraiki dira aspaldiko partez eta arazoak daude.

Zeintzuk dira sasoirik onenak?

Denboraldia urrian hasi eta batzuetan aben-

“Lotura gara ehiztariekin: lurren jabeekin hitz egiten dugu, postuak kontrolpean ditugu eta mendia garbi mantentzen dugu”

“Ehizaren arazoa da ikusgarria dela: eskopetak daramatzagu, zarata egiten dugu...”

“Estatuan ehiza da federatu gehien duen kirola, futbola baino gehiago”

dura arte luzatzen da. Normalean usoak eta birigarroak harrapatzen ditugu, hau da, migrazio-hegaztiak.

Dirulaguntzarik duzue? Zeintzuk dira diru iturriak?

Ez dugu ezer eskatu eta ez digute sosik ematen. Udalak Lauroetako ingurugiro-gela uzten digu bilerak egiteko eta bazkideei 24 euro kobratzen diegu urtean; eta ehiza egitera joaten den egun bakoitzeko 0,6 euro. Diru horretatik lurren jabeek oparitxo bana ematen diegu Gabonetan eta gure gastuak betetzen ditugu, besterik ez dugu nahi eta.

Ingalaterran arazoak daude azeriak ehizatzeke. Berton ere zaila al da ehiza egitea?

Ez, baina kolektibo batean gaudenez,

batzuek itxura kaskarra ematen digute batzuetan. Ehizaren arazoa da ikusgarria dela: eskopetak daramatzagu, zarata egiten dugu... Arrantzan animaliak ere hiltzen dira, baina inork ez du ezer esaten.

Zelan disfrutatzen duzue gehien, hegaztiak ehizatzen edo gero ehizatutakoak jaten?

Guztiz gozatzen da: lan txukuna egiteaz, helburua ere pozgarria izateko... Baina denetarik dago: batzuei kideek baino ale gehiago hiltzea besterik ez zaie interesatzen. Zorionez, gutxi dira eta gehienok disfrutatu eta lagunekin egotea nahiago dugu.

Eraginik izan edo izango al du hegaztien gripeak zure jardueran?

Epe motzean baietz uste dugu. Entzunda daukagu arriskurik handiena pasatu dela, baina ez dakit... Uda ondoren migrazio-hegaztiak Afrikatik Europara etorriko dira eta orduan ikusiko dugu... Arraroa da Afrikan edota Frantzia arazoak agertzea eta hemen, ordea, ez... Dena dela, nahiz eta gaixotasuna azaldu, zelan konponduko dute? Kontuan hartu behar da Estatuan ehizaren inguruan dirutza eta jendetza handiak daudela. Izan ere, federatu gehien duen kirola da; futbola baino gehiago esaterako.

Arrantzaz ez dugu hitz egin, baina arrantzale gutxi dago elkarteetan, ezta?

Arrantza ez dugu ia jorratu. Bazkideren bat etortzen bazaigu, kudeatu egiten diogu behar duen guztia. Txorierrin -bere izenak berak adierazten duen moduan- ez dago ia arrantzan egiteko ibairik. Larrabetzun amuarrainak hartzen dira, baina besterik ez dago eta bertoko jendea Burgos edota Villarrealeko pantanoetara doa.

Informazio telefonoa: 619 340 98 95

Testua eta argazkia: Gaizka Eguskiza

Tabakoa: mendekotasuna osasunaren aurka

Tabako kontsumoaren aurkako legea urtarrilean sartu zen indarrean. Lege hori dela eta, polemika handia sortu du, baina ez du izan Gobernuak nahi zukeen eragina. Hona hemen datua: urtero bost milioi pertsona hiltzen dira munduan tabakoaren ondorioz, eta 35 urtetik gorako pertsonen kasuan, heriotzen %16ek izaten dute lotura tabakoarekin.

Testua: Goizeder Uria



Zailtasuna

Zigarro kea hartzeak tabakoarekiko mendekotasun fisikoa zein psikikoa sorrazten du eta hori, gainera, lotuta dago baztertzen zailak diren ohiturekin. Mendekotasun fisikoaren sortzailea nikotina da. Nikotina gure biriketara pasatzen da kearekin batera, eta bihotzetik burmuinera heltzen da zuzenean. Bidaia zazpi segundotan egiten du. Gorputzean badira hargailu edo errezeptore batzuk, eta hargailu horiekin elkartuta, hargailuok gehitu egiten dira. Ondorioz, gorputzak egunean behar izaten duen nikotina/zigarro kopurua ere gehitu egiten da. Nikotinaren efektu psikologikoez (plazerra) mendekotasun

psikikoa sorrazten dute.

Erretzeari utziz gero, nikotinaren abstinentzia sintomak agertuko dira. Sintomok tabakoari utzi eta handik 24 ordura hasten

*“Nikotinak zazpi
segundoan egiten du
bihotz eta burmuinaren
arteko bidaia”*

dira eta abstinentzia mailarik gorena hurrengo 3 edo 4 egunean izaten da; aste batzuen ondoren joan egiten da. Sintomak

Erretzeari uzteko metodoak

Ez da lan erraza, baina tabakoarekiko mendekotasunari aurre egiteko hainbat metodo daude merkatuan: nikotina ordezkatzeko teknikak, farmakoak eta terapia alternatiboak, besteak beste. Baina erretzeari uzteko gogoia izatea ezinbestekoa da.

Nikotina ordezkatzeko teknikak:

- Partxeak: 16 edo 24 ordukoak
- Txikleak
- Konprimituak

Farmakoak:

Bupropion (antidepresiboa). Horrek antisia gutxitzen du.

Bestelakoak:

Fitoterapia, akupuntura, hipnosia...

hurrengo hauek dira: kontzentratze zailtasuna, antisia, gosea, depresioa, insomnioa eta haserre kortasuna.

Arazoak

Tabakoaren osagaietariko bat alkitrana da eta alkitran horrek zerikusia izaten du minbizi mota batzuekin (birietakoa, ahoakoa, hestegorrikoa...), agente kantzerigenoak izaten baititu. Beste alde batetik, odolak gorputz osoan zehar oxigenoa askatzeko duen gaitasuna murriztu egiten du karbono monoxidoak. Azkenik aipatu beharra dago nikotinak baduela lotura gaixotasun koronarioekin eta arnas aparatuko beste gaixotasun batzuekin.

Semealabok.net, gurasoentzako kontsulta gunea

Ikastolen Elkartek euskarazko kontsulta gunea berria jarri du martxan: www.semealabok.net. Kontsulta gunea 0 eta 16 urte bitarteko seme-alabak dituzten gurasoei zuzenduta dago, baita halako haur eta gazteekin lan egiten duten profesionaleri ere.

Ikastoletako gurasoek eta hezitzaileek gune hori erabil dezakete euren kezkak eta galderak plazaratzeko; web orriaren arduradunek erantzun egingo diete euskaraz. Semealabok.net ikastolako komunitate osoarentzat atondutako kontsulta zerbitzua da; zerbitzu horretan, besteak beste, atal hauek aurkituko dituzte gurasoek eta profesionalak: hezkuntza arloko gaiak buruzko artikulak, gomendioak eta esteka interesgarriak.



Interneteko albisterik interesgarrienak Zabald.com-en

Zabald.com Interneten topatutako albiste interesgarrienak zabaltzeko aukera ematen duen sistema da, eta gaztelaniazko meneame.net proiektuan oinarrituta dago. Albisteak edonork bidali ahal ditu, eta gainontzekoek, jasotako albisteen artean bozkatuko

dute. Boto gehien jasotzen dituzten albisteak hasierako orrialdean azalduko dira. Edozein gairekin zer ikusia duten berriak bidali daitezke. Baldintza bakarra, euskaraz idatzita egotea da. Informazio gehiago: www.zabald.com helbidean.

Esamoldeak landuz

Ordiziako Jakintza Ikastolako ikasleek esamoldeak lantzeko ariketak jarri dituzte hurrengo helbide honetan: <http://euskaljakintza.blogspot.com/esamoldeak-praktika/>. Gaztelaniazko esamoldeak eta horien euskarazko baliokideak azaltzen dira bertan. Ariketa horiek EGA azterketa prestatzen dabiltzanentzat baliagarria izatea espero dute Jakintza Ikastolako ikasleek, baita euskara-maila hobetu nahi dutentzat ere.

Euskarazko hainbat tresna, sarean bilduta

Euskara lan-hizkuntza edo ikasgai dutenek hainbat tresna dute eskuragarri www.euskara.euskadi.net helbidean: zuzentzaile ortografikoa, euskarazko softwarea, OCR sistemak, Elhuyar euskara/espainiera Hiztegia, Elhuyar euskara-frantsesa Hiztegia eta UZEIren Sinonimoen Hiztegia, besteak beste. Instalazio eta software-eskakizunak orrialdean bertan daude.



Geure soinu tresnak: panderoa

Musika atal honetan, geureak diren soinu tresnen gaineko serie bat zabalduko dugu. Duda barik, munduko beste leku askotakoak ere badira –eta beste nonbaiten sortuak gehienak-, baina geureak esaten dugunean euskal musikan errotuta daudela esan gura dugu. Horietako gehienak Zamudioko Bertoko musika eskolan irakasten dira eta guk panderoa izango dugu hizpide oraingo honetan.

Gizadiaren historian sortu ziren lehenengo musika tresnak, ahotsarekin batera, perkusiozkoak izan ziren. Talde honen barruan, panderoa zaharrenetarikoa eta zabalduena da. Izan ere, Ozeanian izan ezik mundu guztian zehar erabili da. Hala, mota ezberdinak topa ditzakegu herrialdearen arabera: *bodhran* (irlandarra), *riqq* (arabiarra), *tamburello* (italiarra), *bendir* (magrebtarra)... Tresna honen lehenengo aztarna k.a. 6000. urtekoa da, Anatolian. Ekialde hurbilean panderoak presentzia izugarria izan zuela aipatzekoa da, antzina haien ohituretan berebiziko garrantzia izan zuelako.

Gaur egun, Euskal Herrian “pandero” izenaz ezagutzen dugun musika tresna “marko duen tanborra” deitzen zen garai batean. Victor Hugok, adibidez, Pirinioetan ikusi zuen panderoari “le tambour du basque” deitu zion 1843an. Perkusiozko instrumentua da, membranofonoa hain zuzen ere, soinua larruzko edo polimerozko mintz batek sortzen duelako. Esentzian, marko baten gainean txertatutako larruzko partxe bat da, 6-8 kriskitin parez osaturik. Larruari dagokionez, ardi edo behiarena izaten da, nahiz eta inoiz katuarena erabili izan den. Pandero gehienak Galiziatik ekarri arren, berton ere egon badaude egin dituztenak.

Erabilerari dagokionez, panderoa



familia giroan eta auzo edo herri jaietan jo da duela gutxi arte. Normalean trikitixa edo albokarekin batera jo izan da, nahiz eta bestelako tresnekin ere uztartu den. Erritmo berriak gero eta gehiago dira, baina esanguratsuenak honakoak dira: biribilketa edo martxea, fandangoa edo jotea eta arin-arina edo porrue. Argi dago beraz, tresna hau dantzarekin zuzenki lotuta dagoela, erritmoa markatzen duelako.

Berton, beste lekuetan bezala, panderojole gehienak emakumezkoak dira, nahiz eta gero eta gizonezko gehiago animatzen diren. Galizian adibidez, abestu eta panderoa jotzen duten emakumezko taldeak daude: pandereteirak. Bizkaian ere izan dugu benetako panderojole aitzindari bat: Maurizia Aldeiturriaga. Zeberioztarrak inflexio puntu bat markatu zuen gure panderoaren bilakaeran, bere jo eta abesteko erarekin. Horrek alboka balitz bezala abesten zuen eta zeukan indarra eta alaitasuna transmititzeko berariazko gaitasuna zeukan.

Beraz, instrumentu umil honek bilakae-ra luze baten ondorioz, gure eskuetara heldu den heinean, jo dezagun gure bizitza kriskitin hotzez inguratzeke. Aupa Maurizia!

Testua: Gaizka Peñafiel

Zamudiotik historiaurrera

Zamudion historiaurreko elementu bat baino ez zaigu geratu; elementu hori monumentu megalitiko bat da, tumulu bat, eta Artxandan kokatua dago, Bilbo, Galdakao eta Zamudioko udalerriek bat egiten duten tokian. Tumulu hori Eneolito-brontze Arokoa da; aro horretan sortu ziren Bizkaian lehenengo artzain taldeak.

Artzain taldeok mendirik mendi ibiltzen ziren ganaduarekin batera, eta eraikin sinpleak altxatzen zituzten hilei lur emateko. Hilobiak izaten ziren, beraz, eta ganbera nagusi bat izaten zuten kasurik gehienetan; ganbera hori harriz eta lurrez estaltzen zuten. Esaterako, Gazteluko Landako tumulua 0,80 metro inguru altxatzen da inguruko lurren mailatik.

Handik hurre, silexezko material asko batu dira. Gorago aipatutako talde transumanteak aire zabalean kokatu ohi ziren eta izan liteke, beraz, silexezko materialok aire zabaleko kokapen horien aztarnak izatea.

Lekuz apur bat aldatu behar dugu historiaurreko gizon-emakumeak bizi ziren beste gune batera heltzeko: Berreaga mendira igota, Burdin Arora egingo dugu bidaia.

Berreaga mendian harresi-multzo bat topatu zuten Zamudio, Mungia eta Gamiz-Fikako lurretan dago. Mendi tontorraren inguruko aldapek halako gotorleku berezko bat eratzen dute. Handik ageri dira Txorierriko eta Mungialdeko haranak eta Nerbioiko ibai-ahoa.


Aztarnategi horrezaz gainera, estela multzo bat aurkitu dute han; estelok grabatu eta baxuerliebe tekniken bidez apainduak daude. Bizkaiko bildumarik zahar eta one-tarikoa osatzen dute.

Ikonografiari dagokionez, estela batzuetan motibo lineal bat baino ez da ageri; beste

batzuetan, motibo bi ageri dira, gurutze latindar bat eratzen dutenak; bestetan, gurutze itxurako motiboak motibo erradialekin uztartzen dira; estela batean, ordea, triszela zentral bat ageri da, zerra hortzezko koroa batek inguratua. Estelok zein kultura tes-tuingurutan agertu diren kontuan izanik,

Kristo ondorengo I. mendekoak izan daitezke; estela horiek izango dira, ziur asko, garai hartan Bizkaiko eremurik handienean bizi zen populazio indigena baten aztarnak.

Iturria: *Monumentos de Bizkaia* liburua



Berreaga aurkitutako disko formako estelaren zatia. Osoaren hortzezko orlax apaindua dago eta eraikuntzako materialtzat erabili zen Geldoko baserri batean

LEHIAKETA

Aurreko galderaren

erantzuna:

Valentziako VII.

Argazki Lehiaketa

Irabazlea:

Mertxe Garcia

Sukaldaritza

Hegaluze eta pikillo piper-entsalada

Osagaiak:

- Pikillo piper-lata 2
- Oliotako hegaluze-lata handi bat
- Kipula
- Berakatz atal bat
- Gatza
- Oliba olio
- Perrexila

Prestatzeko era:

Piperrak tiratan ebaki

eta ontzi lau batean jarriko ditugu. Kipula ere juliana erara ebaki eta piperren gainean jarriko ditugu. Gatza botako dugu. Ostein, hegaluzea xehetu eta gainean jarriko dugu. Baratzuria eta perrexila txiki-txiki egin eta entsaladari botako dizkiogu. Amaitzeko, oliba olio-txorrotada bat botako dugu.



Pil-pilean onddoekin eginiko bakailaoa



Gaminiz jatetxea, Zamudion

Osagaiak:

- Bakailaoa pil-pilean
- Oliba olio
- Onddoak
- Onddo-xaflak (oso meheak)
- Perrexil txikitua

Egiteko era:

Onddoak oliba oliotan konfitatuko ditugu. Ondoren, onddoak konfitatzeko erabilitako olio kendu eta hozten utziko dugu.

Olio hori hoztu denean, bakailaoa konfitatzeko erabiliko dugu; ondoren, pil-pila prestatuko dugu. Plater zapal batean bakailao-xerrada jarriko dugu, baita onddo-xaflak, onddo konfitatuak eta pil-pila ere. Gainetik perrexil txikitua botako dugu.

LIBURUAK

Txuntxuneroak

Karlos Sánchez Ekiza. Altaffaylla

Neguko zirkua

Harkaitz Cano. Hemeretzi kontakizunek osatutako liburua.

Zeruetako erresuma

Itxaso Borda. Bordaren zazpigarren nobela honetan, Otsabideko jendeen zoritxarra azaltzen da.

Berba galduen putzua

Seve Calleja

Ur-jauzien negarra

Inongo-Vi-Makome

Hotsateko basoa

Xabier Olaso

Inurri bitxia

M. Landa

Amona basoan galdu zenekoa

Arantxa Iturbe

MUSIKA



Hiriko istorioak. J.C. Perez
Alerta bihotza. Che Sudaka
My innermost. J. Zimmer
Thunderbird. C. Wilson
Amarantine. Enya

DENBORA PASA

LETRAZOPA

P	A	Y	A	E	K	I	N	A	K	X	A	R
D	L	Z	F	E	U	X	H	F	I	K	G	H
M	A	K	I	O	T	J	I	E	N	N	G	M
Ñ	Z	B	J	A	U	B	S	T	K	D	I	U
O	B	N	Y	D	B	A	H	U	I	E	M	Ñ
T	X	A	P	E	A	K	B	Ñ	N	P	J	E
X	U	T	Y	T	M	T	I	O	E	N	G	K
K	Y	Z	R	N	P	S	G	L	K	E	K	E
X	D	K	O	A	J	R	O	Z	I	L	F	A
Z	P	S	R	E	S	T	R	F	O	K	M	L
U	O	L	H	B	E	P	G	Ñ	J	X	I	D
E	S	D	J	A	I	N	G	F	L	A	B	Ñ
Y	I	P	E	T	H	F	I	N	H	L	M	N

G	T	O	J	K	Ñ	I	H	Y	B	O	P	G
R	P	A	E	M	O	G	A	R	I	T	A	G
M	K	L	A	J	P	I	J	H	K	X	M	I
I	R	D	O	U	A	X	F	G	G	I	B	T
N	U	R	B	K	J	Ñ	X	S	F	R	Ñ	I
A	R	R	E	T	X	I	K	O	H	R	E	B
A	Z	Ñ	S	D	R	T	F	U	G	I	L	E
T	R	B	T	J	A	U	T	Z	I	N	H	R
P	F	O	S	O	E	R	K	H	Y	D	N	E
Z	Y	E	X	K	D	R	S	A	A	O	L	A
S	U	T	L	E	R	I	G	U	M	L	D	Y
T	O	N	F	M	D	E	B	M	X	E	I	N
B	Ñ	Y	X	L	X	O	N	E	O	A	M	Z

Aurki itzazu goiko letra-zopan umeen **7 olgetako eraren izenak***. Kontutan hartu Txorierrin esaten dan eran idatzita dauzela.

* "Derioztarren euskara" liburutik jasoak.

Ezkerraldean AIKOR! 47. zenbakiaren letrazoparen erantzuna. 7 olgetako eren izenak.

EUSKAL HERRIKO d-generazioa

Ezin dut gehiago jasan. Lan horak nirekin elkarbaterik du! Sats eginda nago!!



-Dutxatu zaitetz. Ikusiko duzu: Indarberrituko zara, zure beldurrak, nekazak, zalantzak, penak, negarrak, malloak, izerdiak, ezbeharrak... kaneratik behera joango dira. Zure osotasunean iritengo zara. Zure benetako NI-a iritengo da dutxatik.

Hori egingo dut!!



aritz eta nagei
 aitor! 08-09-04 aipiniak 21

6 andu geroago



Antzerkia eta filmak

Sondika

–Kale antzerkia, maiatzaren 13an, 12:00etan, Goiri Erdikoa plazan. El Negro y El Flaco taldearen eskutik.

–*Hiri basatia* umeentzako antzerkia, 17:30ean, Kultur Etxean.

Derio

–*Todas somos compañeros* antzezlan, maiatzaren 27an, 19:00etan, institutuan.

–*Umorezko bakarriketa*, Jon Urrazaren eskutik. Maiatzaren 19an, 20:00etan, Kultur Aretuan.

Zamudio

–*Aupa Etxebeste*, maiatzaren 7an; *King Kong*, maiatzaren 14an; *Oliver Twist*, maiatzaren 21ean, eta *Lutero*, maiatzaren 28an. Guztiak 17:30ean, dorretxean.

Erakusketak

Derio

–Argazki Rallyaren lan erakusketa, maiatzaren 1etik 7ra, Larrabari baserrian.

–Aeromodelismoa, maiatzaren 20an, 17:00etan, Seminarioan.

–Gimnasia Erritmikoa, maiatzaren 20an, 19:00etan, kiroldegian.

Zamudio

–*Argazkiak*, Malena de Botanaren eskutik. Maiatzaren 15etik maiatzaren 30era, dorretxean.

Ikastaroak

Sondika

–Saloi-dantza ikastaroa, maiatzaren 15ean, 17an eta 19an, Jubilatuen Etxean.

Irteerak

Sondika

–Mendi irteera, maiatzaren 7an, 10:00etan.

–Sella ibaiko jaitsiera, maiatzaren 27an.

–Ibilaldia (Elorrio) maiatzaren 28an.

Derio

–Ibilaldi neurtua, maiatzaren 21ean, 8:00etan, Herriko Plazatik.

Lezama

–Herri Urrats (Senpere), maiatzaren 14an.

–Los Campanarios (Alto Ason-Kantabria), maiatzaren 28an.

Zamudio

–Bizkargi, maiatzaren 7an.

–Montmelo zirkuitua, maiatzaren 12tik 14ra.

–Herri Urrats (Senpere), maiatzaren 14an.

–Urduña, maiatzaren 14an.

–Ibilaldia (Elorrio), maiatzaren 28an.

Kirolak

Lezama

–Areto Futboleko XVIII. Txapelketaren azkenaurrekoak eta finala, maiatzaren 7an eta 14an, 10:30etik aurrera, Goronda Beko kiroldegian.

Derio

–Uribe Kosta Torneoaren finalak, maiatzaren 6an, 9:00etatik 14:00etara, kiroldegian.

–Areto Futboleko VII. Txapelketa Txiki Triangeluarra, maiatzaren 19an (gizonezkoa) eta 26an (emakumezkoa), 19:00etan, kiroldegian

–Eskupilota Txapelketa, maiatzaren 21ean, 10:00etan, pilotalekuan.

–Herri kirolak, maiatzaren 21ean, 12:30ean, Herriko Plazan.

–Nazioarteko VIII. Xake Opena, maiatzaren 28an, 10:00etatik aurrera, kiroldegian.

Zamudio

–Slaloma, maiatzaren 27an, Torrelarragoin.

Lezama

–Kiroldegiko I. Eskupilota Txapelketa. Maiatzaren 6an.

Larrabetzu

–Jesus Loroño VII. Txapelketa, maiatzaren 14an, 15:00etatik aurrera.

Kontzertuak

Derio

Kontzertu korala, maiatzaren 19an, 19:30ean, San Isidro elizan.

Bestelakoak

Sondika

–Saharako haurrak familietan hartzeari buruzko hitzaldia, maiatzaren 3an, 20:00etan, Kultur Etxean.



–XII. Argazki Rallyaren sari banaketa, maiatzaren 7an, 11:30ean, Kultur Etxean.

–Aste Berdea, maiatzaren 29an eta 30ean eta ekainaren 1ean eta 2an, Ludoteka I eta II: lantegiak, marrazki lehiaketa...

Derio

–Briska Txapelketa, maiatzaren 8an eta 9an, 17:00etatik 19:00etara.

–Azoka txikia, maiatzaren 28an, 11:00etatik 14:00etara, oinezkoentzako aldean.

Zamudio

–Udaberriko bazkaria, maiatzaren 25ean, 14:15ean, Adintsuen Etxean.